

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2018ko martxoaren 23an aurkeztuko du

Michael Snow: *Zirkuitu itxia*

Michael Snow: *Zirkuitu itxia*

- Datak: martxoak 22–uztailak 1
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

2018ko martxoaren 22tik uztailaren 1era, Guggenheim Bilbao Museoak *Zirkuitu itxia* erakusketa aurkeztuko du; bertan, 1960ko hamarkadatik zinema esperimentalaren garapenean funtsezko figura izan den Michael Snow artista kanadarraren lau obra bilduko dira. Erakusketa horrek inauguratuko du Film & Video aretoko 2018ko programazioa. Guggenheim Bilbao Museoaren ekimena da Film & Video aretoa, bideoarteak, bideoinstalazioak eta mugimenduan dagoen irudiak arte-baliabide gisa sortutako lan giltzarriak erakusteko abiatua.

Michael Snow (Toronto, 1928) artistaren praktikak, bideoarte eta zinema esperimentalak lantzeaz gain, pintura, argazkilaritza, eskultura eta musika era barne hartzen ditu. Diziplina anitzeko artista da, eta askotariko baliabide eta materialei buruz duen ezagutza aplikatzen du obrak sortzerakoan, berak azaldu duen moduan: “zinemagile batek egiten ditu nire margolanak, musikari batek nire eskulturak, pintore batek nire filmak (...) eta, batzuetan, denak aldi berean aritzen dira”.

Modu gurutzatu eta libre horretan, Michael Snow munduko irudikapen bisual eta ez-bisualeko sistemen inguruan hausnartzen du. Harentzat, film-irudiaren materialtasuna (denborazkotasuna, soinua, kolorea eta argitasuna) bertan irudikatutakoa bezain garrantzitsua da. Horren harira, argia eta denbora dituen eskultura gisa ulertzen du artistak zinema, eta, aldi berean, ikuspegia berenganatzen, desbideratzen edo blokeatzen dituzten objektuak egiten ditu; horrela, artelanak arreta-zirkuitu espezifikokoak sortzeko duen gaitasuna jartzen du agerian.

Zirkuitu itxia erakusketa osatzen duten lau obrak askotariko formatuetan eginda daude, eta, haietan guztietan, irudia guztiz bereizten da filmaren edukitik. *Ikuspegia (Sight, 1968)* aluminiozko eta plastikozko egitura bat da, eta, leiho baten gainean muntatuta dagoenez, mugatu egiten da haren ikuspegia, diagonalean. Ezohiko enkoadraketaren bidez, perspektiba desagertu egiten da, eta artistak objektu artistiko osoari begiratzera behartzen gaitu, objektua izanik aldi berean markoa eta marko barruko paisaia. Aurreko obraren jatorrizko izenburuaren homofoniarekin jokatzuz, *Lekua (Site, 1969/2016)* altzairu herdoilgaitzezko egitura bat da, itsasoa eta haren mugimendua irudikatzen dituen testu labur batez lagundua. Artistak hitzarekin ordeztzen du irudia, eta eskulturarekin, berriz, iradokitako lekua, toki gisa. Ez du irudi bat aurkezten, baizik eta irudi baten ideia.

Gainerako bi piezak bideo-gailuak dira, eta irudiaren, eskulturaren eta lekuaren arteko beste lotura batzuk arakatzeko dituzte. Kamera finko baten bidez, *Braque eta Picasso kaleen arteko izkina (The corner of Braque and Picasso streets, 2009)* obrak Guggenheim Bilbao Museoaren kanpoaldea proiektatzen du

beste erakusketa batzuetako idulkiekin egindako pantaila batean. Gailu horrek zinema modu iragankor bat sortzen du, eta hiriko eguneroko bizimodua iragazkirik eta giza interakziorik gabe erakutsi. Obrak keinu bikoitza egiten dio pinturaren historiari: mundura begirako leihoa da (Snowren hainbat obratako gaia), baina baita pieza “kubista” ere, proiektatzeko aukeratutako askotariko bolumenetan galtzen den irudi gisa, Georges Braqueren eta Pablo Picassoren lehenengo obrak gogora ekarriz. Bestalde, *Ikuslea (Observer, 1974)* obrak zuzenean interpelatzen du ikuslea, eta lurrean markatuta dagoen ixa handi baten gainean jartzera gonbidatzen du; bertan, kamera bat dago, ikuslearen figura denbora errealean hartzen duena. Ikuspuntuarekin eta eremuaren sakontasunarekin jolasean, Snowk esperientzia zuzen eta asaldagarri bat eskaintzen dio ikusleari: gorputza irudi lau, bi dimentsioko objektu bihurtuta ikustearena.

Michael Snow. Biografia

Sorkuntza garaikidearen eta, nagusiki, zinema esperimentalaren pertsonaia nagusietako bat da Michael Snow (Toronto, 1928). Espiritu polifazetikoa du, eta diziplina askotan jardun da, baina batez ere bere sorkuntza bisualaren berezitasunari esker bihurtu da ezagun nazioartean. Haren obra gehienak pertzepzioaren mekanikari eta haren paradoxei buruzkoak dira.

Haren lan zinematografikoa mundu osoko film-artxiboetan dago, eta zinemaldi askotan erakutsi da. Bestalde, haren instalazioak, eskulturak, pinturak eta argazkilaritzako obrak Kanadako eta nazioarteko bilduma garrantzitsuetan daude; besteak beste, Vancouver Art Gallery, Art Gallery of Ontario (Ottawa), MoMA (New York), Centre Georges Pompidou (Paris) eta Museum Ludwig (Kolonja/Viena) erakundeetan. Halaber, haren obren atzera begirako erakusketa garrantzitsuak egin dira, hala nola hauek: The Power Plant-ek (Toronto) 1994an antolatutakoa, eta nazioarteko hainbat tokitara iritsi zena (Parisko Centre national de la photographie eta Ginebrako MAMCO); Philadelphia Museum of Art museoak 2014an egindakoa; eta Bartzelonako La Virreina Centre de la Imatge zentroak 2015ean prestatutakoa. 1972an, Guggenheim Fundazioaren beka jaso zuen, eta, hainbat sariren artean, hauek lortu ditu: Officer and Companion of the Order of Canada (1982 eta 2007), eta ikusmen-arteetako Governor General's Award (2000). 1995ean, Chevalier de l'ordre des arts et des lettres izendatu zuten Frantzian, eta, 2004an, honoris causa doktore Parisko Unibertsitatean.

Topaketak artistekin: Michael Snow (martxoak 22, 18:30)

Martxoaren 22an, 18:30ean, Guggenheim Bilbao Museoko Entzungelan, Michael Snowk Manuel Cirauquirekin hitz egingo du bere sormen-prozesuaz eta Film & Video aretoko *Zirkuitu itxia* erakusketan bildutako obrei buruz. Hitzaldiaren ondoren, mahai-inguru bat egingo da bertaratzen direnekin.

Film & Video aretoa (103)

Bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimenduan dagoen irudiari eskainitako espazioa da Film & Video aretoa, eta Guggenheim museoetako eta beste nazioarteko bilduma batzuetako obrak hartzen ditu. 2014ko martxoan ekin zitzaion areto honetako programazioari, Christian Marclayen *Erlojua (The Clock)* instalazioarekin. Horren atzetik, beste asko etorri dira: Ragnar Kjartansson artista islandiarraren *Bisitariak (The Visitors)*, eta Rineke Dijkstraren *The Crazyhouse (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee)*, Liverpool, UK; 2015ean, Kimsooja artista kontzeptualaren *Hariaren bideak (Thread Routes)*, Shahzia Sikanderren *Paralajea*

(*Parallax*), eta Ho Tzu Nyen artista singapurtarraren *Ezjakintasunaren hodeia* (*The Cloud of Unknowing*); 2016an, Eija-Liisa Ahtila artista finlandiarraren *Deikundea* (*The Annunciation – Marian Ilmestys*), Sam-Taylor Johnsonen *Hasperena* (*Sigh*), eta Fiona Tanen *Desorientatzea* (*Disorient*); eta, 2017an, Pierre Huyghe artista frantziarraren (*Izenbururik gabe*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*, 2014], baita *underground* zinemaren aitzindari izandako Ken Jacobsen *Gonbidatuak* (*The Guests*), eta Amie Siegel artistaren *Negua* (*Winter*) instalazio-performancea.

Azaleko argazkia:

Michael Snow

Braque eta Picasso kaleen arteko izkina

(*The Corner of Braque and Picasso Streets*), 2009

Zuzeneko irudien etengabeko proiektzioa, mutua

Urruneko kontrola duen kamera eta zurezko idulkiak

Michael Snow eta Àngels Barcelona-ren eskaintza

© Michael Snow



Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsa irudiak:
Michael Snow: *Zirkuitu itxia*
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoki bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Michael Snow

Braque eta Picasso kaleen arteko izkina

(The Corner of Braque and Picasso Streets), 2009

Zuzeneko irudien etengabeko proiektzioa, mutua

Urruneko kontrola duen kamera eta zurezko idulkiak

Michael Snow eta Àngels Barcelona-ren eskaintza

© Michael Snow



Michael Snow

Ikuspegia (Sight), 1968

Aluminioa eta plastikoa

142,2 x 106,7 x 2 cm

Collection of Vancouver Art Gallery, Vancouver Foundation Endowment Fund and Canada Council Matching Funds

© Michael Snow



Michael Snow


Lekua (Site), 1969/2016

Altzairu herdoilgaitza, kartela

172,7 x 71,1 x 71,1 cm

Michael Snow eta Christopher Cutts Gallery, Toronto, eskaintza

© Michael Snow



Michael Snow

Ikuslea (Observer), 1974

Bideoinstalazioa, zuzeneko irudien etengabeko proiektzioa, mutua

80 x 100 cm

Michael Snow eta Àngels Barcelona-ren eskaintza

© Michael Snow

